


## Ikastoliak berrogei urte



irakaskuntza euskaldunetako egin zittuan ahaletin serixuak. Kaleko mutikuen herri-eskolak agustiñuen ardurapean geratu ziranian (1928-1936), dotriña emuten euen euskeraz eta gainera erderaz, nahiz eta **Fernando Urkia**, **Benito Larrakoetxea**, **Alfonso Urkidi** eta beste irakasle batzuk, kantuen bidez-eta, euskal girua pizten saiatu. Gerra ostian ezta pittin hori be.

Baiaña urte luze eta illun harein ondoren, ailegatu zan Oñatira be euskeraz ikasteko aukeria, euskaltzale eta guraso batzuen ahalegiñari eskerrak. Orduko ikastola gehixenak lez, parroxiaren babespeian bideratu zan Oñatikua be, **San Migel Ikastola** izenarekin, 1967ko agorraren 17xan. Aurtin berrogei urte beteko dittuan eskola honek **Eli Igartzabal** andereñuarekin ekin otsan bere ibilbidiari gaur egungo Aita Madina kaleko pisu batian, Kale Zaharreko kooperatiba gañian, orduan kaliak, kuriosua da, **Colegio** edo **Ikasola** (sic) izena baldin bauekan be. Harrezkero, zenbait arazo eta gorabehera gaindittuaz, makiña bat lekutatik pasau bihar izan dau gure herriko euskalduntze-prozesuan hain inportantea izan dan ikastetxe honek: Lizaar kalia, Agustiñuen komentuko azkenengo pisua, San Lorenzo, Plazako eskolak eta Santa Anako komentu zaharra. Azkenengo bi lokal horreitan jarraitetan dau iragoko urtietan **Txantxiku Ikastola** izenagaz,

Gaurko argazkixokin hasierako momentu hareik gogoratu gura izan dittugu. Batian **Jose Luis Arrazola** parrokixako abadia agiri da ikasgelia bedinkaketan inauguraziño-egunian; ezkerrekoa **Paulo Agirregabiria** sakristaia da; eskumakua **Jose Otalora**, Ikastolako lehenengo lehendakaria; eta atzeko emakumiak, ezkeretik eskumara, **Miren Zumalde**, **Tere**

**Enparantza** eta **Milagros Letamendi**. Bestian, berriz, lehengo ikasturte haretako ume batzuk ikusi geinke 1968 mariatzian egindako jaialditxo batian. Mutiko dantzariak honeitxek dira ezkeretik eskumara: **Imanol Galdos**; **Iñaki Moreno**; **Patxi Izura**; **Mikel Iturrosp**; **Mikel Ibarrola**; **Jabi Arkauz**; **Jabi Erostarbe**; eta **Joxe Mari Urtzelai**. Eta atzeko neskatillen artian honeik ezagutu dittugu: **Garbiñe Garai**; **Garbiñe Romano**, **Agurtzane Zabal**; **Nekane Jausoro**; eta **Susana Anduaga**.

J. E.

Fotografixak Julio Romanoren bittartez eskuratu dittugu eta argibide batzuk Garbiñe Garairi zor xaugu. Eskerrik asko bixoiri!

